



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA-OHARRA

REMENTERIAK UKO EGIN DEUTSO DEFIZITA GEHIAGO HANDITZEARI, ETORKIZUNEKO BELAUNALDIK EZ KONPROMETIDUTEKO

- Bizkaiko Ahalduen Nagusiak agerraldia egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, taldeei 2020ko bilketaren itxieraren barri emoteko.
- Gogoratuazo dau lurraldeak zergen bidez lortutako diru-sarrerak aurreikusitakoa baino gitxiago jaitsi zirala, “% 10,9”, eta uko egin deutso gastu gehiago egiteko ekitaldi bitan zorpetzea ia 600 milioi euro handitzeari.
- Oposizinoaren ustez, Bizkaiak beste lurralde biek baino diru gitxiago batu eban, eta erreforma fiskala eta udal finantzaketa eredia eta Ekarpenen Legea aldatzea eskatu dau.

(Bilbon, 2021eko zezeilaren 18an). Unai Rementeria Bizkaiko ahalduen nagusiak agerraldia egin dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, Herri Dirubideen Euskal Kontsejuak zezeilaren 12an egindako bileraren eukia azaltzeko. Bilera horretan, hiru lurralde historikoetako diru-sarreraren 2020ko likidazioaren itxieraren barri emon zan. Covid 19aren inpaktuaren ondorioz Diru-bilketaren beherakadea “% 10,9koa” izan zan Bizkaian, orain hilebete batzuk aurreikusitakoa baino beherakada txikiagoa.

Aldundiak diru-sarrera gitxiagogaz aurre egin behar deutse daborduko konprometituta egozan gastuei eta pandemiak Bizkaiko ekonomian izan dituan ondorioei; hori dala eta, Aldundiak aurreikusi bako “ia 300 milioiko” zorpetzea sartu eban 2020ko kontuetan, eta beste horrenbeste, aurreikuspenak beteten badira datorren eguaztenean Gernikan onartuko diran aurtongo aurrekontuetan. Hori bai, Rementeriak ohartuarazo dau ez dagozala “etorkizuneko belaunaldien kontura” defizit hori gehiago handitzeko prest, Elkarrekin Bizkaiari erantzunez, “defizitari hutsean eusteko ahalegin horregaitik” talde horren kritikak jaso ostean.

Azkenik, Foru Aldundien zerga itunduen bilketa finkatua 13.949 milioi eurokoa izan zan 2020an, hau da, 2019an baino 1.520 milioi euro gitxiago, eta urte arteko beherakadea % 9,8koa izan zan EAEn (% 10,9 Bizkaian). Holan, 537,7 milioi euro gehiago bildu ebezan, urriaren 15ean onartutako itxierarako aurreikuspenagaz alderatuta. Rementeriak azpimarratu dauenez, erkidegoaren zerga bidezko diru-sarrera gordinen “ia % 60” (% 59,30) Bizkaian batzen da, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

horrek erakusten dau “ez gagozala txarto” beste lurraldeakaz alderatuta, “kontrakoa esango neuke”, esan dau, Bizkaiak erakunde komunei egindako ekarpenaren % 50,39ko koefizientea daukala aitatzuz.

Pandemiaren eragina desbardina izan zan zerga batzuen eta besteen bilketari jagokonez. Zigorrik handiena Soziedadeenak jasan eban, % 22,2 jaitsi zan eta. Eta beste puntan PFEZaren % 3,2ko beherakada egon zan. BEZari, euskal erakundeen finantzaketaren oinarri dan beste hanka handiari, jagokonez, % 14,4 jaitsi zan. Azkenik, Bizkaiko Ogasunak 7.122 milioi euro jaso ebazan, 2019ko likidazioan baino 873 milioi gitxiago.

Beharakada hori hor dagon arren, “eusten ari gara”, esan dau; izan be, hasierako aurreikuspena “okerragoa” zan. Ahaldun nagusiak ohartuarazo dauenez, “zalantzak” dagoz oraindino pandemiaren bilakaerea dala eta, baina “ziurtasunak” be badagoz, “ekonomiari lagunduko deusolako garrantzitsua dan” txertaketa prozesua, edo Europako funtsen etorrerea, beste batzuen artean.

Oposizino taldeek azpimarratu dabenez, bilketa gehiago jaitsi da Bizkaian, gainerako lurraldeetan baino. Euskal Autonomia Erkidegoko “batez bestekoaren azpitik dago”, adierazo dau Amaya Fernandez popularrak, eta Ekarpenen Legea aldatzeko prozesua aitatu dau oposizino taldeakaz batera, “hamarkada bateko atzerapena daroalako”.

Batutako dirua ikusita, Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldearen bozeroaleak pisu gehien industrian daukan eredu ekonomikoa aldatzea eskatu dau, eta baita zerga arloko erreforma bat egitea be, “aurrezkoa eta kapital-errentak horrenbeste bultzatuko ez dituan eta diru-sarrerak beharginen klaseen ganean ez egotea ahalbidetuko dauen fiskalitate progresibo bat izateko”; izan be, PFEZren diru-sarrerak “% 3,2” baino ez dira jaitsi, eta Soziedadeen ganeko Zerga % 22 baino gehiago. Gai horretan, Rementeriak “gauzak ez nahasteko” eskatu dau, PFEZ “guztion artean ordaintzen dalako” eta Soziedadeen ganeko Zergak enpresen irabaziak zergapetzen ditualako.

Juan Otermin sozialisten bozeroalea pozik agertu da diru-bilketaren aurreikuspenak “egokiak” izan diralako eta, datuak ikusita, “egonezin gitxiago” izan daikegulako, “oso une gogorrean sistemak funtzionau dauelako”. Bere taldearen “kezka” pandemiak PFEZaren hurrengo kanpainan izango dauen eragina da. Otermin, erreforma fiskal biak urte amaieran ebaluatzearen alde agertu da, edozein aldaketa egin aurretik.

Bestalde, EH Bilduko Arantza Urkaregik azpimarratu dau zerga-bilketaren jaitsierea ez dala “hain handia” izan PFEZaren eta, batez be, lan-errenten portaera onari esker, eta, horregaitik, zerga arloko aldaketak egitearen alde agertu da. “Zerga zuzenek zeharkako zergek baino pisu handiagoa euki behar



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dabe”, esan dau Urkaregik, aberastasuna gehiago zergapetzeko, eta udalei egindako ekarpena “% 15,02” jaitsi izana be kritikau dau, ekarpen hori bilketaren jaitsierea baino gehiago jaitsi dalako, eta horrek udal finantziazio eredua aldatzeko beharra dagola berresten dau.

Jesus Lekerikabeaskoa Eusko Abertzaleak taldeko bozeroaleak azpimarratu dauenez, abalak “likidauta” dagoz, doikuntzarako funtsa “ez da osorik erabili behar izan”, eta funts bereziak “ez dira agortu”. Jeltzaleak pandemiaren testuinguruan kokatu ditu datu ekonomikoak. Horrek diru-bilketaren beherakada “historikoa” ekarri dau, “zorionez” orain hamar hilebete egindako aurreikuspena baino txikiagoa. Udalkutxari jagokonez, Batzar Nagusietako EAJren bozeroaleak udalek diru gitxiago itzuli beharko dabela azpimarratu dau. Hasierako aurreikuspenaren 60 milioiak 46 milioi (45.965.000) bihurtu dira, ahaldun nagusiak Finantzen Lurralde Kontsejuaren bilera egin aurretik aurreratu dauenaren arabera, eta hori “albiste ona da”.

Taldeei emondako erantzunean, Rementeriak esan dau Bizkaiko interesak datuakaz defendiduko dituala, Ekarpunen Legearen onarpenari jagokonez, zirriborro aurreratua daukalako, Ogasun sailburuak FEKren bileraren ostean iragarri ebanek. Modu berean, talde bereziari erantzunez, ahaldun nagusiak esan dau ez dauela aurreikusten hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak “barriro azertu behar izango diranik”. Eta, azkenik, “epe laburrean” Eudelegaz batzorde parekidea sortzearen aldeko apustua egin dau, udal finantziazioa lantzen joateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

REMENTERIA RECHAZA AUMENTAR MÁS EL DÉFICIT PARA NO COMPROMETER A LAS GENERACIONES FUTURAS

- **El Diputado General de Bizkaia comparece en las Juntas Generales de Bizkaia para informar a los grupos del cierre de la recaudación de 2020.**
- **Recuerda que los ingresos del territorio por impuestos descendieron menos de lo previsto, “un 10,9%”, y se niega a incrementar el endeudamiento de casi 600 millones en dos ejercicios, para acometer más gasto.**
- **La oposición critica que Bizkaia recaudó porcentualmente menos que los otros dos territorios y le pide una reforma fiscal y cambios en el modelo de financiación municipal y en la Ley de Aportaciones.**

(*Bilbao, a 18 de febrero de 2021*). El diputado general de Bizkaia, Unai Rementería, ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia para explicar el contenido de la reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 12 de febrero, en la que se informó del cierre de la liquidación de los ingresos de los tres territorios históricos en 2020. La caída de la recaudación como consecuencia del impacto del covid-19 en Bizkaia se situó en el “10,9%”, un descenso menor al previsto hace meses.

La Diputación tiene que hacer frente con menos ingresos a gastos que ya estaban comprometidos y a las consecuencias de la pandemia en la economía de Bizkaia, de ahí que la institución foral incluyó un endeudamiento no previsto de “casi 300 millones” en las cuentas de 2020 y de otro tanto en los presupuestos de este año que previsiblemente se aprobarán el próximo miércoles en Gernika. Eso sí Rementería ha avisado de que no están dispuestos a aumentar más este déficit “a costa de las generaciones futuras”, en respuesta a Elkarrekin Bizkaia que le criticaba por “ese empeño de mantener el déficit en cero”.

Finalmente, la recaudación consolidada por tributos concertados de las Diputaciones Forales ascendió a 13.949 millones de euros en 2020, es decir 1.520 millones menos que en 2019 y una caída interanual que se situó en el conjunto del País Vasco en el 9,8% (10,9% en Bizkaia). De esta forma, la recaudación obtenida superó en 537,7 millones respecto a la previsión de cierre aprobada el 15 de octubre. Rementería ha destacado que “casi el 60%”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

(59,30%) de los ingresos brutos por impuestos de la comunidad se recaudan en Bizkaia, lo que demuestra que “no estamos mal” respecto a los otros territorios, “yo diría lo contrario”, ha dicho, en referencia a que Bizkaia cuenta con un coeficiente de aportación a las instituciones comunes del 50,39%.

El impacto de la pandemia fue diferente en lo que toca a la recaudación de los diferentes impuestos. El más castigado fue el de Sociedades que cayó un 22,2%. Y en el otro extremo se situó la caída del 3,2% en el IRPF. Respecto al IVA, la otra gran pata sobre la que se apoya la financiación de las instituciones vascas, la caída fue del 14,4%. Finalmente, la Hacienda de Bizkaia ingresó 7.122 millones de euros, 873 millones menos respecto a la liquidación de 2019.

Pese a esta caída, “estamos aguantando”, ha dicho ya que la previsión inicial era “peor”. El diputado general ha avisado de que todavía hay “incertidumbres” debido a la evolución de la pandemia, aunque hay también “certezas”, como el proceso de vacunación “que es importante porque ayudará a la economía”, o la llegada de los fondos europeos.

Los grupos de la oposición han puesto el acento en que la recaudación cae más en Bizkaia, que en el resto de territorios. “Se sitúa por debajo de la media” de la Comunidad Autónoma Vasca, ha apuntado la popular Amaya Fernández, quien ha hecho mención, junto al resto de grupos de la oposición a la modificación de Ley de Aportaciones, ya que “lleva una década de retraso” .

A la vista de la recaudación, la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha pedido un cambio del modelo económico con más peso de la industria, así como una reforma fiscal para tener una fiscalidad “más progresiva que desincentive el ahorro y las rentas de capital y que permita que los ingresos no recaigan en las clases trabajadoras”, ya que los ingresos en el IRPF “solo” han caído un 3,2%, frente a más del 22% del Impuesto de Sociedades. En esta cuestión, Rementería ha pedido “que no se mezclen las cosas”, ya que el IRPF “se paga entre todos” y el Impuesto de Sociedades grava los beneficios de las empresas.

Desde las filas socialistas, su portavoz, Juan Otermin, se ha congratulado de que las previsiones recaudatorias hayan sido “acertadas” y que a tenor de los datos “podemos estar menos inquietos”, porque “el sistema ha funcionado en un momento brutal.” La “inquietud” de su grupo es el impacto que dejará la pandemia en la próxima campaña del IRPF. Otermin se ha mostrado partidario de evaluar las dos reformas fiscales a finales de este año, antes de acometer cualquier cambio de envergadura.

Por su parte, Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha destacado que el descenso de la recaudación no ha sido “tan grande” gracias al buen comportamiento del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

IRPF y, en especial, de las rentas de trabajo, por ello ha abogado por introducir cambios fiscales. “Los impuestos directos necesitan más peso que los indirectos” para gravar más a la riqueza, ha defendido Urkaregi, quien ha criticado también que la aportación a los municipios haya caído un “15,02%”, un descenso superior a la caída de la recaudación, lo que refrenda que hay una necesidad por cambiar el modelo de financiación municipal.

El portavoz del grupos Nacionalistas Vascos, Jesús Lekerikabeaskoa ha querido destacar que los avales “están liquidados”, que el fondo de ajuste “no ha tenido que ser empleado en su totalidad”, así como que los fondos especiales “no se han agotado”. El jeltzale ha ubicado los datos económicos en un contexto de pandemia, lo que ha provocado un descenso “histórico” en la recaudación, “afortunadamente” mejorado respecto a la previsión que se hizo hace diez meses. En referencia a Udalkutxa, el portavoz del PNV en las Juntas Generales ha destacado que los ayuntamientos tendrán que devolver menos dinero. Los 60 millones de la previsión inicial se han convertido en 46 millones (45.965.000), según lo avanzado hoy por el propio diputado general antes de celebrarse la reunión del Consejo Territorial de Finanzas, “lo que es una buena noticia”.

En su respuesta a los grupos, Rementeria ha dicho que defenderá los intereses de Bizkaia con datos, respecto a la aprobación de la Ley de Aportaciones que cuenta con un borrador avanzado, según anunció el consejero de Hacienda tras la reunión del CVF. El diputado general ha apuntado también que no prevé hacer “ninguna revisión” de las previsiones de crecimiento económico en respuesta al grupo Mixto. Y, por último, ha apostado por crear una comisión paritaria “a corto plazo” con Eudel para ir trabajando la financiación municipal.